

**EGIAZTAPENERAKO ETA BAIMENERAKO
UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALAK
EBALUATZEKO LAGUNTZA GIDA (GRADUA
ETA MASTERRA)**

SARRERA

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 48. artikulua eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 3. artikulua agentziaren esku uzten dute Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateen titulazioak ebaluatzeko eskumena.

Gainera, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duen uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuan ildo nagusi, baldintza eta ziurtapen- eta egiaztapen-prozedura jasotzen dituzte, eta ikasketa-planek horiek guztiak bete beharko dituzte Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan sartu aurretik.

Bestetik, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuak prozedura bat arautzen du Unibasqek ebaluazio-txostena egin dezan Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateetako titulu ofizialak lortzeko graduako, masterreko eta doktoregoko ikasketa-planei dagokienez.

Unibasqek, legeria hori eta REACU Unibertsitate Kalitateko Agentzien Espainiako Sareak titulu ofizialak egiaztatzeko onartutako ebaluazio-protokoloa oinarritzat hartuta, honako gida hau egin du, eta titulazioak ebaluatzeko batzordeek erabili ahal izango dute beren ebaluazioak egiteko; ildo horretan, titulu ofizialen proposamenek, ezarritako irizpide eta jarraibideak zenbateraino betetzen dituzten egiaztatzeko aukera izango dute, eta, horren arabera, egiaztapenaren eta dagokion baimenaren aldeko edo kontrako ebaluazio-txostena emango dute.

Dokumentu honetan aurkeztutako txantiloian hainbat galdera bildu dira, ebaluazio-batzordeek proposamenak balioesteko oinarri gisa erabiliko dituztenak. Txantiloia egitura bat dator 861/2010 Errege Dekretuaren II. Eranskinean jasotako 10 alderdien arabera egiturarekin eta abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuan jasotako alderdiekin, unibertsitateek oinarritzat darabiltzatenak unibertsitate-graduako eta –masterreko titulu ofizialen memoriak egiteko:

1. Tituluaren deskribapena
2. Justifikazioa
3. Gaitasunak
4. Ikasleen sarbidea eta onarpena
5. Irakaskuntzen plangintza
6. Langile akademikoak
7. Baliabide materialak eta zerbitzuak
8. Aurreikusitako emaitzak
9. Kalitatea Bermatzeko Sistema
10. Ezarpen-egutegia
11. Memoria ekonomikoa: diru sarrerak, gastuak eta unibertsitateko irakaskuntza ofizialarekin loturiko inbertsioak (UPV/EHuren kasuan besterik ez)
12. Emakumeen eta Gizonen aukera-berdintasuna.
13. Euskal Autonomi Erkidegoaren formakuntza beharretara egokitzea.
14. Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko (GHEE) printzipioetara egokitzea

15. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko eskaintza aurrerapenerako bektoreetara egokitzea.
16. Proposatutako Unibertsitate-irakaskuntzan genero ikuspegia-gehitzea: ikasleen onarpena eta orientabidea, irakasleria, planifikazioa....
17. Ikasgaien eta kredituen euskarazko eskaintza

(OHAR ARGIGARRIA: Aurretik aipatutako atal guztiak ez daude txantiloian, alderdi batzuk atal ezberdinekoak baitira eta batean adierazten dira birritan ez azaltzeko)

Ebalua daitezkeen alderdiak txantiloian jasota daude, eta, haien ondoren, lau kategoriaren arabera balioespen-eskala dago; kategoria horien artean, besteak beste, datuak ez ematea eta betekizuna behar bezala beteta egotea daude. Aipatutako balioespen-eskala honako hau da:

- **EZ DU AURKEZTU:** Ez dago ebaluatzeko datu erabilgarririk.
- **EZ DU NAHIKOA AURKEZTU:** Gure ustez, balioetsi beharreko alderdiak EZ dira egokiak/berariazkoak/garrantzitsuak eta abar.
- **NAHIKOA, BAINA HOBETU DAITEKE:** Balioetsi beharreko datuak egokiak/berariazkoak/garrantzitsuak eta abar dira gure ustez, baina hobetu daitezke informazio gehiago emanez edo lehendik dagoen informazioa argituz.
- **GOGOBETEKOA:** Balioetsi beharreko alderdiak egokiak/berariazkoak/garrantzitsuak eta abar dira gure ustez.

Ebaluatzaileek gune zuri bat izango dute alderdi bakoitzari emandako kalifikazioa ahalik eta modurik osatuenean justifikatzeko. Ebaluazioaren elementu bakoitzari buruzko balioespena arrazoitu behar duzue, txantiloian horretarako ezarritako laukietan, baldin eta balioespena **EZ DA NAHIKOA** edo **NAHIKOA BAINA HOBETU DAITEKE** baldin bada.. Justifikazio horietatik gomendio eta ondorio batzuk aterako dira, Titulazioen Ebaluazio Batzordeak eman beharreko txostenak egiteko erabiliko dituenak, eta, ezinbestean, unibertsitateek aldatu beharko dituztenak, aldeko txostena lortzeko.

UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALAK (GRADUA, MASTERRA) EBALUATZEKO TXANTILOI LAGUNGARRIA

TITULUAREN IZENA	
ESKAERA EGIN DUEN UNIBERTSITATEA	
IZ	
EBALUATZAILEA	
DATA	

1. TITULUAREN DESKRIBAPENA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Bat al dator tituluaren izendapena, eta, hala badagokio, haren aipamen (gradua) edo espezialitateen (masterra) izendapena, proposatutako ikasketa-planarekin, nahasterik ez eragiteko moduan?				
Ikastetxe bakoitzeko irakaskuntza mota(k) justifikatuta eta ongi garatuta al dago/daude ikasketa-planean?				
UPV/EHUko graduen kasuan: Aurreikusitako sartze-berriko plazen kopurua abenduaren 19ko, 274/2017 Dekretuan (11. Artikulua), ezarritako ikasle kopuruarekin bat al dator?				
Oinarritzko formakuntza eta derrigorrezko irakasgaiak euskaraz eskaintzen diren UPV/EHUren graduen kasuan, aurreikusitako sartze-berriko plazen kopurua abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuan, (12. Artikulua), ezarritako ikasle kopuruarekin bat al dator?				
UPV/EHUko masterraren kasuan, estimatutako ikasle berrien plaza kopurua abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuan (12. Artikulua) ezarritakoarekin bat al dator?				
Betetzen al du kreditu kopuruak indarreko araudia? OHARRA: Abenduaren 19ko 274/2017 Dekretua: Euskadiko Unibertsitateko Gradu Ofizialen Irakaskuntzak 240 ECTS Kredituekin osatua egon behar da, kreditu gehiagorekin araututako titulazioak salbu				
Ikasleko eta eskola aldiko matrikula-kredituen gutxieneko kopuruak ikasleei lanaldi-partzialeko ikasketak egiten uzten die?				
Bat al dator iraute-araudia tituluaren ezaugarriekin eta kredituaren definizioarekin?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

2. JUSTIFIKAZIOA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
2.1. INTERES AKADEMIKOA, ZIENTIFIKOA EDO PROFESIONALA				
Eskaintako ebidentziek agerian jartzen al dute proposatutako tituluaren interesa? (azken urteetako eskaintzari, eskariari eta matrikulari buruzko datuak, tituludunak laneratzeko azterlanari buruzko datuak eta abar)				
Gradu eta masterreko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzeko proposamenek kontuan hartu al dute benetako eskaera dagoela? OHARRA: 13. Atalarekin loturiko alderdiak. Euskal Autonomi Erkidegoko formakuntza-beharrizaretara egokitzapena, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
Titulu batzuen kasuan, hau da, memorian argi ikusten ez denean titulazio horietan eskaera handia dagoela, ezinbestekoak al dira euskal gizartearen premiei erantzuteko? OHARRA: 13. Atalarekin loturiko alderdiak. Euskal Autonomi Erkidegoko formakuntza-beharrizaretara egokitzapena, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
Lehen aldiz proposaturiko gradu eta masterreko unibertsitate-irakaskuntza ofizialen kasuan: ikasle berrien eskaera-aurreikuspenak antzeko titulazioetan azken ikasturteetan erregistraturiko eskaerari erreferentzia egiten al dio? OHARRA: 13. Atalarekin loturiko alderdiak. Euskal Autonomi Erkidegoko formakuntza-beharrizaretara egokitzapena, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
Araututako jarduera profesional batean aritzeko gaitzen duten tituluatarako: proposamenean jasota al daude titulu horri lotutako jardun profesionala erregulatzen duten arauak? Bat al dator proposamena arau horiekin?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Egiaztatzen al da bai akademikoki eta bai profesionalki, tituluaren edo gaiaren izateak titulazio ezberdin bat sortzeko behar besteko funtsezko berariazkotasun bat azaltzen duela? 13. Atalarekin loturiko alderdiak. Euskal Autonomi Erkidegoko formakuntza-beharrizanetara egokitzapena, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
UPV/EHUK sustaturiko tituluei dagokienez, titulu bat unibertsitate beraren zentro batean baino gehiagotan eskaintzen den kasuetan: Ba al dago titulazioen bikoiztasunari buruzko arrazoizko azalpenik? OHARRA: 13. Atalarekin loturiko alderdiak. Euskal Autonomi Erkidegoko formakuntza-beharrizanetara egokitzapena, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
Titulu bat Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitate batean baino gehiagoan eskaini nahi bada: ba al dago titulazioen bikoiztasunari buruzko arrazoizko azalpenik eta beharrizana bermatzen duen ikusketarik? OHARRA: 13. Atalarekin loturiko alderdiak. Euskal Autonomi Erkidegoko formakuntza-beharrizanetara egokitzapena, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
2.2. KANPOKO ERREFERENTZIAK				
Babesa ematen al dute kanpoko erreferentziek proposamena Estatuko edo nazioarteko irizpideetara egokitu ahal izateko, antzeko ezaugarri akademikoak dituzten titulueterako?				
Maila berekoak al dira erreferentziak eta aurkeztutako titulu-proposamena MECES irizpideen arabera?				
Proposamena berria izaki erreferentzia nahikorik ez badago, talde akademiko baten eta/edo kanpo-agente adituen babesa al dauka? Proposamenaren eremuan, ba al dago garapen profesionalean aurrera egiteko itxaropenik?				
2.3. KONTSULTA PROZEDURAK				
Egokiak al dira ikasketa-plana egiteko erabilitako barne- eta kanpo-kontsultako prozedurak?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

3. GAITASUNAK

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
3.1. GAITASUN OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK				
Tituluak argi eta garbi zehaztu al ditu ikasleek ikasketak amaitzean lortu beharreko gaitasunak?				
Bat al dator gaitasunen (orokorrak, zeharkakoak eta espezifikoak) profila ikasketa-planarekin?				
Lerrokatuta al daude proposamenaren gaitasunak MECES irizpideek maila horretarako ikaskuntza-mailekin?				
Espainian araututako jarduera profesional batean aritzeko gaitzen duten tituluatarako: bat al datoz titulurako definitutako gaitasun orokorrak xedapen ofizialetan ezarritakoekin?				
Proposatutako gaitasunak ebaluagarriak al dira?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

4. IKASLEEN SARBIDEA ETA ONARPENA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
4.1. MATRIKULATU AURREKO INFORMAZIO SISTEMAK ETA IKASLE SARTU BERRIAK HARTZEKO ETA ORIENTATZEKO PROZEDURAK				
Ongi definitu al dira tituluaren sartzeko bideak eta betekizunak, sartzeko lege-betekizunak betetzea eta sartzeko gomendatutako profila barne?				
Proposamenean aurreikusi al dira matrikulatu aurretik informazioa eskuratzeko bitarteko egokiak eta ikasle sartu berriak hartzeko eta orientatzeko prozedurak?				
4.2. SARTZEKO BALDINTZA EDO PROBA BEREZIAK				
Hala badagokio, adierazi al dira sartzeko baldintza edo proba bereziak, eta bat al datoz proba horiek eskumeneko administrazioak ezarritakoarekin?				
Hala badagokio, zehaztu al dira onartzeko organoa, prozedurak eta betekizunak?				
4.3. MATRIKULATU ONDOREN IKASLEAK BABESTEA ETA ORIENTATZEA				
Proposamenean aurreikusi al dira matrikulatu ondoren ikasleei laguntzeko eta orientatzeko bitartekoak?				
Ba al dago ikasleari, bere unibertsitate-egonaldian, aholkua emango dion tutoretza-programarik?				
4.4. KREDITUEN TRANSFERENTZIA ETA ONESPENA				
Proposamenean argi eta koherentziaz zehaztu al dira kredituak transferitzeko eta onesteko bitartekoak (hala badagokio, unibertsitatez kanpoko goi-hezkuntzaren eremuan ikasitako kredituak onestea)?				
Gradu-kasuan bidezko bada, espresuki aipatzen al dira, kredituak transferitu eta onesteko sistemaren barruan, kulturako, kiroleko, ikasleak ordezkatzeko, elkartasuneko eta lankidetzako jarduerak onesteko araudian jasota dauden arauak ?				
Bidezko bada, ongi eskaintzen al da titulu propioetan ikasitako kredituak onesteko prozedurei eta egiaztatutako esperientzia profesionalagatik kredituak onesteko prozedurei buruzko				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
informazioa? Bermatzen al da onespren hori tituluaren gaitasunen arabera soilik gauzatuko dela?				
Bidezko bada, titulu propio batean ikasitako kredituengatik proposatutako tituluaren kredituen % 15etik gora onetsi nahi bada, frogatzen al du proposamenak desagertutako titulu propioa eta aurkeztutako titulu-proposamena kalitate berekoak direla?				
4.5. GRADURA EGOKITZEKO IKASTAROA EDO ZUBI IKASTAROA				
Unibertsitateak beharrezko ikusten badu curriculum-diseinu jakin bat (egokitze-ikastaro bat) eskaintzea aurreko antolamenduko tituludunak graduko irakaskuntzetan sartzeko, zehaztu al dira diseinu horri eta sartzeko irizpide eta baldintzei lotutako alderdi guztiak?				
4.6. MASTERRA EGITEKO ONARTUA IZATEKO PRESTAKUNTZA OSAGARRIAK				
Master-titulueterako bidezko bada, prestakuntza-osagarriak ongi deskribatu al dira? Onarpen-irizpideekin bat al datoz?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

5. IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA

IKASLEEN SARBIDEA ETA ONARPENA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
5.1. IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA				
<p>Gradu-titulueterako: bat al dator tituluaren modulu edo ikasgaien definizioa jakintza-adarren arabera oinarritzko gaiei buruz ezarritakoarekin?</p> <p>OHARRA: 14 Atalarekin loturiko alderdia. Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko (GHEE) printzipioetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA</p>				
<p>Ikasketak lehen urteetan karrera desberdinek komunean dituzten ikasgaiak ezarriz eta azken urteetan, aitzitik, dibertsifikazio egokia ezarriz oinarritutako eredu egituratu al dira ikasle mugikortasuna aukera ezberdinen artean errazteko eta baliabideen erabilera eraginkorra bultzatzeko (Especializazio edo dibertsifikazio mailakatu)?</p> <p>OHARRA: 14 Atalarekin loturiko alderdia. Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko (GHEE) printzipioetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.</p>				
<p>Graduaren, masterraren eta doktoregoaren arteko lotura behar bezala planifikatuta al dago?</p>				
<p>Zehaztu al dira tituluak irakaskuntza koordinatzeko dauzkan bitartekoak?</p>				
<p>Bat al datoz ikasketa-plana osatzen duten modulu edo ikasgaiak tituluaren gaitasunekin?</p>				
<p>Hala badagokio, proposamenak ba al du modulu edo ikasgai jardunbide profesionalei loturik, tituluaren helburuak lortzeko lagungarri izan daitezkeenik?</p>				
<p>Zehaztu al da irakaskuntzen izaera eta ikasgai mota (oinarritzko prestakuntza, nahitaezkoak, hautazkoak, kanpo-jardunbideak, titulazio-amaierako lana), ECTS kredituen arabera banaketa eta guzti?</p> <p>OHARRA: 14 Atalarekin loturiko alderdia. Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko (GHEE) printzipioetara</p>				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
Euskara bultzatzeari buruzko araudian aipatzen den irizpide-aplikazioa bermatzen duten mekanismoak ezartzen al dira? (Abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuko 6 artikulua) OHARRA: 17 Atalarekin loturiko alderdia. Ikasgaien eta kredituen eskaintza euskaraz, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
Euskaraz ematen diren oinarritzko eta derrigorrezko ikasgaien eskaintza bermatzen al da? OHARRA: 17 Atalarekin loturiko alderdia. Ikasgaien eta kredituen eskaintza euskaraz, abenduaren 19ko 274/2017ko Dekretuaren ERANSKINA.				
Hirugarren hizkuntzaren erabilera unibertsitateko jarduera akademikoetan sartzan al da, kontuan izanda tituludunen maila eta beharrianak? (Abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuko 7. artikulua)? OHARRA: 15. Atalarekin loturiko alderdia. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko eskaintzaren aurrerapenerako bektoreetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren ERANSKINA.				
Hirugarren hizkuntza bultzatzeari buruzko araudian aipatzen den irizpide-aplikazioa bermatzen duten mekanismoak ezartzen al dira? (Abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuko 6 artikulua) OHARRA: 15. Atalarekin loturiko alderdia. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko eskaintzaren aurrerapenerako bektoreetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren ERANSKINA.				
Hala badagokio, ikasketa-planetan sartu al dira desgaituen funtsezko eskubideekin eta irisgarritasun unibertsalarekin zerikusia duten irakaskuntzak? Eta bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako kultura baten berezko balioekin zerikusia dutenak?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Masterren kasuan: proposatutako ikerketa-ildoak koherenteak al dira?				
5.2. IKASLEAREN MUGIKORTASUNA				
Bidezkoa den tituluetan: informaziorik eskaintzen al da ikasleen mugikortasuna errazteko lankidetzaz-hitzarmenen eta mugikortasuna finantzatzeko eman daitezkeen laguntzen inguruan ? (ikasteko bidaia-poltsak, lekualdatzeko poltsak eta abar) OHARRA: 15. Atalarekin loturiko alderdia. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko eskaintzaren aurrerapenerako bektoreetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren ERANSKINA.				
Hala badagokio, mugikortasun-ekintzek plangintza, jarraipenerako, ebaluaziorako, kredituak esleitzeko eta curriculum-onespenerako mekanismo egokiak al dituzte? OHARRA: 15. Atalarekin loturiko alderdia. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko eskaintzaren aurrerapenerako bektoreetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren ERANSKINA.				
5.3. MODULU EDO IKASGAIEN DESKRIBAPENA				
Bat al datoz ikasleak modulu eta/edo ikasgaietan lortutako gaitasunak titulua emateko eskatzen direnekin?				
Modulu edo ikasgai bakoitzean deskribatutako prestakuntza-jarduera eta -edukiek, eta erabilitako metodologiaz, ba al dute zerikusirik haien gaitasunekin eta tituluaren gaitasunekin? Ongi definituta al daude? OHARRA: 15. Atalarekin loturiko alderdia. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko eskaintzaren aurrerapenerako bektoreetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren ERANSKINA.				
Modulu edo ikasgai bakoitzaren prestakuntza-jarduerak egokituta al daude denboraren arabera antolamendura (sei hilean behin, hiru hilean behin, astean behin eta abar)?				
Proposatutako ebaluazio-sistemak aukera ematen al du ikaslea modulu edo ikasgai bakoitzaren gaitasunez eta tituluaren gaitasunez zenbateraino jabetu den balioesteko?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
<p>Titulua ikasi eta irakasteko zenbait modalitate eskaintzen badira (presentziala, erdipresentziala edo urrunekoa), prestakuntza-jarduerak, irakaskuntza metodologiak eta ebaluazio-sistemak bereizita definitu al dira modalitate horietako bakoitzerako?</p> <p>OHARRA: 15. Atalarekin loturiko alderdia. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko eskaintzaren aurrerapenerako bektoreetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren ERANSKINA.</p>				
<p>Ikasketa autonomoa ahalbidetzen duten irakaskuntza metodologia eraginkorrak erabiltzen dira? Erantzuna baiezkoa bada, hauek ezartzeko beharrezko diren giza eta material baliabiderik ba al dago?</p> <p>OHARRA: 15. Atalarekin loturiko alderdia. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko aurrerapenerako bektoreetara egokitzea, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren ERANSKINA.</p>				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

6. LANGILE AKADEMIKOAK

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Zehaztu al da zenbat langile akademiko dauden erabilgarri, zer kategoria akademiko duten, unibertsitatearekin nolako lotura duten, irakaskuntzan, ikerkuntzan edo beste eremu profesional batean zer esperientzia duten, tituluari lotutako jakintza-eremuetara egokituta ote dauden eta tituluan zenbaterainoko dedikazioa duten?				
Zehaztu al da zenbat langile laguntzaile dauden, unibertsitatearekin nolako lotura duten eta zer esperientzia profesionala duten?				
Hala badagokio, ezarri al da zein diren irakasleen premiak eta ikasketa-plana koherentziaz aurrera eramateko bestelako giza baliabideak, zenbat kreditu eskaini behar diren, inplikaturako jakintza-adarrak zein diren, zenbat ikasle dauden eta gainerako aldagai garrantzitsu guztiak?				
Egokiak al dira irakasle eta irakaskuntza-langileen profila eta ezaugarriak proposamenaren ezaugarriak kontuan hartuta (titulua emateko hizkuntza/k)? OHARRA: Ikusi 2017ko irailaren 25eko Unibasq-eko Aholku Batzordearen hitzarmenerako proposamena, titulazio ofizialeko ebaluazio programetan pertsonal akademikoei eskatu beharreko betebeharrekin loturikoak				
Proposamenean aurkeztutako irakasle taldeak ba al du behar adinako esperientzia profesionalik enpresa-praktiken ardura behar bezala hartzeko (praktika horiek ikasketa-planean bilduta daudenean)?				
Baterako programei dagokienez, lortu al da akordioen bat unibertsitate parte-hartzaile guztietako irakasleak nola txertatu antolatzeke?				
Irakasleriaren kontrataziorako, irakaskuntza hizkuntza ez ofizialean eskaintzeko mekanismorik aurreikusi al da? OHARRA: 15. Atalarekin loturiko alderdia. Euskal Unibertsitate Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko eskaintzaren aurrerapenerako bektoreetara egokitzea,				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren ERANSKINA.				
Proposatutako ikasle berrien plazak betetzeko, nahikoa al da dagoen pertsonal akademikoa?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

7. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
7.1. ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK				
Aukera ematen al dute unibertsitateetan erabilgarri dauden baliabide materialek eta zerbitzuek prestakuntza-jardueren garapena bermatzeko?				
Hala badagokio, ba al dago informazio egokirik beste erakunde batzuek ikasketa-planean deskribatutako prestakuntza-jardueren garapenean eduki behar duten parte-hartzea arautzeko hitzarmenen inguruan? Informazio hori aurkezten al da?				
Hala badagokio, aukera ematen al dute erakunde laguntzaileetan erabilgarri dauden baliabide material eta zerbitzuek ikasketa-planean deskribatutako prestakuntza-jardueren garapena bermatzeko?				
Betetzen al dituzte unibertsitatean eta erakunde laguntzaileetan erabilgarri dauden baliabide material eta zerbitzuek irisgarritasun unibertsaleko eta diseinuko irizpideak?				
Zehaztu al dira unibertsitatean eta erakunde laguntzaileetan erabilgarri dauden material eta zerbitzuen azterketa eta mantentze-lanak egiteko edo bermatzeko bitartekoak? Eta haiek eguneratzeko bitartekoak?				
Proposatutako ikasle berrien lanpostuentzako nahikoak al dira dauden errekurso materialak?				
Finantza-errekursoak kontuan hartuta, Titulazioaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna egiaztatzen al da?				
7.2. AURREIKUSITAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK				
Ikasketa-plana proposatzeko unean behar diren baliabide material eta zerbitzu guztiak erabilgarri ez badaude, nahikoak al dira azpiegitura edo zerbitzu berriak hornitzeko planak? Justifikatu al da plan horiek ikasketa-planen premietara egokitzea?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

8. AURREIKUSITAKO EMAITZAK

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
8.1. ADIERAZLEEN ZENBATESPENA				
Egin al da garrantzizko adierazleen zenbatespen justifikaturik, gutxienez graduazio-, abandonu- eta eraginkortasun-tasak barnean hartuta?				
Hala badagokio, kontuan hartu al dira, beste erreferentzia batzuen artean, aldez aurreko ikasketaplanen garapenean lortutako datuak?				
8.2. AURRERAPENA ETA IKASKUNTZA EMAITZAK BALIOESTEKO PROZEDURA				
Unibertsitateak prozedura orokorren bat zehaztu al du ikasleen aurrerapena eta ikaskuntza-emaitez balioetsi ahal izateko (kanpo-probak, titulazio-amaierako lanak eta abar)?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

9. KALITATEA BERMATZEKO SISTEMA

OHARRA: zentroak Unibertsitate Prestakuntzaren Kalitatearen Barne Bermeko Sistemak Errekonozitzeko Programan (Unibasqen AUDIT) parte hartu badu eta aldeko txostena badu, atal hau ez da bete behar.

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
9.1. IKASKETA PLANAREN KALITATEA BERMATZEKO SISTEMAREN ARDURADUNAK				
Identifikatu al da ikasketa-planaren kalitatea bermatzeko sistemaren ardura duen organo edo unitaterik? Zehaztu al dira haren erregelamendua edo funtzionamendu-arauak? (egitura eta osaera)				
Zehaztu al da irakasleek, ikasleek, arduradun akademikoek, langile laguntzaileek eta kanpoko beste agente batzuek nola parte hartu behar duten?				
Aztertu al da batzorde bat sortzeko aukera, enplegu-emaileekin eta, oro har, titulazio bakoitzerako garrantzitsua den ingurune ekonomiko eta profesionalarekin elkarriketarako gunere irekia lortzea ahalbidetuko duena?				
9.2. IRAKASKUNTZAREN, IRAKASLEEN ETA LANGILE LAGUNTZAILEEN KALITATEA EBALUATZEKO ETA HOBETZEKO PROZEDURAK				
Definitu al dira irakaskuntzaren kalitateari buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak, eta zehaztu al da ikasketa-plana berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
Definitu al dira irakasleei buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak, eta zehaztu al da ikasketa-plana berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
9.3. KANPO PRAKTIKEN ETA MUGIKORTASUN PROGRAMEN KALITATEA BERMATZEKO PROZEDURAK				
Definitu al dira kanpo-praktikei buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak, eta zehaztu al da ikasketa-planak berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
Definitu al dira mugikortasun-programei buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak, eta zehaztu al da ikasketa-planak berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Mekanismorik ezarri al da, titulazioak edo zentroak genero berdintasunaren aldeko politikak bultzatu ditzan?				
9.4. GRADUATUEN LANERATZEA ETA PRESTAKUNTZAREKIKO GOGOBETETZEA AZTERTZEKO PROZEDURAK				
Definitu al dira egresatuak laneratzeari buruzko informazioa biltzeko eta aztertze prozedurak, eta zehaztu al da ikasketa-plana berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
Zehaztu al dira egresatu eta enplegu-emaileen jasotako prestakuntzarekiko gogobetetzeari buruzko informazioa biltzeko eta aztertze prozedurak, eta zehaztu al da ikasketa-plana berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
9.5. INPLIKATUTAKO KOLEKTIBO GUZTIEN GOGOBETETZEA ETA IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIOEN ARRETA AZTERTZEKO PROZEDURAK.				
Definitu al dira tituluaren inplikaturako kolektiboen gogobetetzeari buruzko informazioa biltzeko eta aztertze prozedurak, eta zehaztu al da ikasketa-plana berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
Definitu al dira ikasleen iradokizunei edo erreklamazioei buruzko informazioa biltzeko eta aztertze prozedura egokiak, eta zehaztu al da ikasketa-plana berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
9.6. TITULUA DESAGERTZEKO IRIZPIDEAK				
Definitu al dira irizpide eta prozedura espezifikoak balizko titulu-desagertzearen kasurako?				
9.7. TITULUAREN GARAPENARI BURUZKO INFORMAZIOA				
Ezarri al da informazioa argitaratzeko bitarteko egokirik, hau da, inplikaturako edo interesaturako pertsona guztiei ikasketa-planari eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazioa helarazteko modukorik?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

10. EZARTZEKO EGUTEGIA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
10.1. TITULUA EZARTZEKO KRONOGRAMA				
Definitu al da ikasketa-plan berriak ezartzeko prozesua koherentziaz jasoko duen kronogramarik?				
10.2. LEHENDIK DAUDEN IKASKETA PLANETATIK ERATORRITAKO IKASLEAK EGOKITZEA				
Prozeduraren bat aurreikusi baldin bada lehendik dauden ikasleak ikasketa-plan berrira egokitzeko, egokia al da prozedura hori egokitzapena ongi gauzatzeko?				
10.3. DESAGERTZEN DIREN IRAKASKUNTZAK				
Hala badagokio, argi zehaztu al da proposatutako titulua ezartzearen ondorioz desagertzen diren irakaskuntzak zein diren?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

11. MEMORIA EKONOMIKOA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Tituluari loturiko sarrerei, gastuei eta inbertsioei buruzko deskribapen laburra aurkeztu al da?				
UPV/EHUren kasuan: Aurkeztu al da memoria ekonomiko zehaztua –azpiegitura materialari, irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen baliabideei buruzko datuak ez ezik finantzaketa-iturriak ere aipatzen dituenena-?				
UPV/EHUren kasuan: Gehitu al da plantilla edo baliabide materialak areagotzeko premia dagoela?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.

12.EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA-BERDINTASUNA

16. PROPOSATUTAKO UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZAN GENERO IKUSPEGIA BARNERATZEA: IKASELEEN ONARPENA ETA ORIENTABIDEA, IRAKASLERIA, PLANIFIKAZIOA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Proposatutako unibertsitate irakaskuntzak irakas-karrerari dagokionez, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bultzatzen al du?				
Proposatutako unibertsitate-irakaskuntzak generoaren arabeko ikasleen parte-hartze orekatua bultzatzen du diziplina eta ezagutza arlo guztietan?				
Ezagutza eta arlo desberdinetako Irakaskuntzan eta ikerketa lanetan, genero ikuspegia sartzea bultzatzen da? Eta , hizkuntza ez-sexistaren erabilera eta Gizartearen garapenerako giza eta historikoa den ekarpena bultzatzen da?				
Tituluen proposamenean unibertsitatean genero ikuspegia sartzen ari den ebidentzien aipurik egiten al da? (Berdintasun planik dagoen, (Berdintasun Planik bai?, politikak bultzatzeko berdintasun egiturarik, jarduera espezifikorik...)				
Irakasleriaren kontratazioan, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatzen dituzten printzipiorik eta diskriminazio gabeko mekanismorik aurreikusi al dira?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak.